



TOLOSALDEKO ATARIA

Jon Mintegiaga Oiarbide



VALDEMORON
PRESO

Doktoretza tesi baterako gaia

XABIERREK 19 URTE daramatza espetxean, beti lehen graduari, oso urrun. Kanean zuen neskalagun berarekin jarraitzen du eta 40 urteak pasata dituztelarik ez dirudi beren harremanetik kimu berririk sortuko denik. Azken urteetan *vis a vis*ak burutzeko izan dituzten zailtasunak ez die batere lagundu, epe motzean egotzeko ez zuela irtenbiderik izango barneratu ostean, erlojuaren aurkako borrokan umeak ekartzeko hartu zuten erabakiari. Etsiturik, antsietateaz, harremana mantentzen dute.

Gorka ere Xabierren adinaren bueltako da baina egokitzen zaion zigor luzearen lehen urratsetan dabil oraindik. Neska laguna espetxean egin du. Bere moduluko kidea bisitatzera etorritako lehengusinari begia bota zion, hari berriz grazian erori zitzaion eta lehengusua normalean baino gehiagotan bisitatzen hasi zen egiatan Gorka bisitatzeko. Gutun apasionatu eta opari nerabeak gurutzatu ondoren, *vis a vis*a gozatzen hasi ziren, denborarekin bikote bihurtuz.

Ez da bereziki begi zorrotza izan behar euskal presoek bikote ereduaz jabetzeko. Gehien gehienguan heterosexuala eta jendarte patriarkarrak markatua, emakumezko euskal presoek apenas kaleko bikoterik duten

Aitor gaztea da eta bere harremana bezala ondu gabea. Hezurretaraino maite-minduta egon gabe atseginez hartzen du kanean jadanik neskalaguna zuenaren bisita. Maite du, bizitza handia ematen dio. Beste bideak ez ditu baztertu erabat ordea; gutunez lardaskan dabil aspaldiko amorante batekin.

Andonik ez zuen bikoterik harrapatu zutenean. Bisitan etortzeko lagunak zerrendarekin batera herriko neska ugari

lagun bezala *vis a vis*etara etortzeko prest zeudela esan zioten etxekoek. Zalantzaz, gehien preziazten zuenaren partez tarteka liatu izan zen militante politikoa hautatu zuen, eta "gerlariaren atsedena" goxatzen dion txorta-laguna dauka.

Joxek bi ume ditu, koxkortuak, espetxe zigorraren gainean zama handitzen diotenak. Larunbat eguerdira arte luzatzen diren amaren lan ordutan aitona-amonek betetzen dute haren falta, ez gutxitan, *vis a vis*ak igandetan eskatu beharrean izaten direlarik hilean bizpahirutan, atsedean egunak aprobetxatuz.

Asierrek espetxera sartu orduko neska ezezagun baten gutuna jaso zuen. Bere atxiloteta mediatikoan maiz azpimarratu zuten mendizale eta eskalatzailer trebatua zela eta hura ere zalea zenez aitzakia harekin idatzi omen zizkion animoak bideratzeko lehen lerro haiek. Denboran, bikote harremana hastera pentsatu zuten eta egun, familia osatzeko erabakia hartua dute.

Ainhoak ... Ainhoak ere badu bikotea, Joxe, beraiekin batera atxilotu zuten militantea. Bolada batean geografiako punta banatan atxikiak izan ondoren behin ezkon paperak sinatuta espetxe berean elkartu zituzten. Astean behin, kristala tarteko, 40 minutuko bisita dute. *Vis a vis*a hilero.

Ez da bereziki begi zorrotza izan behar euskal presoek bikote ereduaz jabetzeko. Gehien gehienguan heterosexuala eta jendarte patriarkarrak markatua, emakumezko euskal presoek apenas kaleko bikoterik duten.

Bestela esanda, beren burua independentista, sozialista eta esplizituki feminista kontsideratzen duen mugimendu hartako gizonaek, salbuespenak salbuespen, ez daude prest milaka emakumek hartutako konpromiso berdinari eusteko. Horrek, zer pentsatua eragiteaz gain, doktoretza tesi baterako ematen du. ■

*** Oharra:** Argia.eus webgunean, *Txabolotik* blogean daude irakurgai artikulua hau eta egilearen gainerakoak.